

Zarauzko Tokiko Ekintza Planaren ezartze- mailaren ebaluazioa (2009. urtea)

TOKIKO AGENDA 21




TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

Laguntza teknikoa

Siadeco^x
ikerketan aplikatua

AURKEZPENA

Dokumentu honek 2009. urtean, TA21eko Tokiko Ekintza Planen ezartze-mailaren ebaluazioa egiteko, Gipuzkoako udalerriei eskainitako laguntza-programaren bidez, Udaletxe honetan bildutako emaitzak jasotzen ditu.

Tokiko Agenda 21, herri nahiz hiriek, Garapen Iraunkorrekiko duten konpromisoa gauzatzeko erabiltzen duten tresna da. Tokiko Agenda 21 hainbat elementutan egituratzen da, horien artean azpimarratzekoak:

- **Tokiko Ekintza Plana:** Plan honek, tokiko garapen iraunkorra hobetzeko asmoz, 4-5 urteetan burutu beharreko ekintzak biltzen ditu.
- **Udaletxeko barne-koordinaziorako mekanismoa:** Izen desberdinak har ditzakeen mekanismoa izateak -Tokiko Agenda 21eko Batzordea, Tokiko Iraunkortasunerako Batzordea...- eta kalitatezkoa izateak, Planaren zeharkakotasuna bermatzen laguntzen du.
- **Herritarren parte-hartzerako mekanismoa:** mekanismo hau izateak, gizarte eremu guztietako entitate eta ordezkarien ikuspegia txertatzen dela bermatzen du.

Jarraian, prozesu honetan zehar, elementu hauen guztien inguruan egindako azterketan bildutako emaitza nagusiak.

EDUKIEN AURKIBIDEA

- 1 TOKIKO AGENDA 21 DUTEN UDALERRI GIPUZKOARRETAN, EKINTZA PLANEN EZARTZE-MAILAREN EBALUAZIOA EGITEKO LAGUNTZA-PROGRAMA
- 2 AZALPEN METODOLOGIKOA
- 3 EKINTZA PLANAREN EZAUGARRIAK
- 4 PLANAREN EZARTZE-MAILAREN EMAITZAK
- 5 AALBORG-eko KONPROMISOEI EGINDAKO EKARPENA
- 6 TOKIKO AGENDA 21eko BARNE-KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAREN AZTERKETA
- 7 TOKIKO AGENDA 21eko HERRITARREN PARTE-HARTZE MEKANISMOAREN AZTERKETA
- 8 PLANAREN EGUNERATZEA

1

**TOKIKO AGENDA 21 DUTEN
UDALERRI GIPUZKOARRETAN,
EKINTZA PLANEN EZARTZE-
MAILAREN EBALUAZIOA EGITEKO
LAGUNTZA-PROGRAMA**

2009

1.1.- ZEINTZUK DIRA PROGRAMAREN HELBURUAK?

Programa hau 2005. urtean jaio zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Sailaren eskutik, eta bere helburua Ekintza Planen urteroko ebaluazioa eta programazioa egiteko laguntza teknikoa eskaintzea da. Tokiko Ekintza Planetan zehaztutako ekintza guztien ezartze-maila aztertzeaz gain, laguntza-planak, Ekintza Planaren kudeaketa aktiboa sustatzen du, bere ezarpena eraginkorra gerta dadin.


Programa honekin, prozesu hauen indarguneen eta ahulezien ikuspegi objektibo eta zorrotza eskuratu nahi da, udalen nahiz Foru Aldundiaren jarduera etengabe berrantolatu eta optimizatzeko bide emango duena.

1.2.- ZEIN DA PROGRAMAREN HEDADURA?

Programa honen **hedadura** handitzen joan da nabarmen lehen urtetik 2008. urtera bitartean; azken urte honetan aldiz, parte-hartzea aurreikusten den erakundeen (udal eta eskualde agentzien) kopurua mantendu egin da.

Aurten, zehazki, 35 udalerrik eta eskualdeko bi agentziek parte hartzea aurreikusten da.

Programan parte hartzen duten erakunde-kopuruaren (udal eta eskualdeko agentzien) bilakaera



2


AZALPEN METODOLOGIKOA

2.1.- NOLA KOKATZEN DA TOKIKO AGENDA 21aren PROZESUAN?

Tokiko Agenda 21, udalei, tokian-tokiko izaera eta egoerara egokituta, Garapen Iraunkorreko udal estrategia lantzeko aukera eskaintzen dien tresna da. TA21, Ekintza Plan batean eta plana ezartzeko beharrekoak diren bestelako elementuetan gauzatzen da (udal barneko koordinazio mekanismoa, hiritarren parte hartze mekanismoak...)

Ondorengo grafikoan adierazten da Ekintza Planaren diseinu eta martxan jartzearen prozesua.

TA21en prozesu orokorraren eskema hasieratik





Ezarpen eta jarraipen fasean, oso garrantzitsua da urtero egiten den JARRAIPEN PLANAREN bidez sustatzen den planaren kudeaketa aktiboa. Ondorengo tresnak ditu plan honek:

- Tokiko Iraunkortasun Adierazleak: urtero kalkulatzen diren Adierazle hauek, udal estrategiak duen eragina neurtzeko aukera ematen dute, emaitzei erreparatuta.
- **Planaren ezartze-mailaren ebaluazioa: ebaluazio honek, urtero zer ezarri den aztertzen du.**
- Bildutako informazioa, hurrengo urtean egin beharreko jarduerak zehazteko lagungarria gertatuko da, hau da, Planaren urteroko programazioa egiteko.

Programa honen bidez, udal Ekintza Planaren ezartze-mailaren urteroko ebaluazioa egin da 2009ko abendura arte.

2.2.- NOLA KOKATZEN DA TA21eko EKINTZA PLANEN DISEINU ETA EZARPENAREN INGURUKO EZAUGARRIETAN?

Tokiko Garapen Iraunkorra lortzeko, udalek duten tresna gisa, **Tokiko Agenda 21ak** hainbat **ezaugarri** bete behar ditu arrakastatsua gertatzeko.


Ondorengo irudian agertzen dira, hain zuzen, bete beharreko ezaugarri horiek.

Programa honen bidez, aldagai hauetako batzuek udal mailan duten osasun egoerari buruzko informazioa eskaintzen da.



Planaren ezartze-maila ebaluatzeko metodoa zehazten duen Udalsarea 21eko metodologiak, planaren bi ezaugarri aztertzen ditu zuzenean: **Operatibotasuna eta Zeharkakotasuna**. Ebaluazio prozesutik eratorritako adierazle-sorta aztertu egiten du metodologiak, eta datuok lurralde mailako datuokin konparatzeko aukera ematen du (hots, prozesu hauetan parte hartzen duten udalerrri guztietako emaitzetatik lortutakoak). Honetaz gain, ezartze-mailaren ebaluazioa egiteko laguntza-programa honen bidez, Gipuzkoako Iraunkortasunaren Behatokitik, azterketa “parte-hartzearen” aldagaiarekin osatzen da, prozesuan duen eragina nabarmena baita.


2.3.- ZERTAN DATZA PLANAREN EZARTZE-MAILAREN EBALUAZIOA?



Urtero, Tokiko Agenda 21ekin aurreratuen doazen euskal udalek, **Udalsarea 21**ean erabiltzen den metodologia komuna aplikatzen dute. Metodologia honek, urtean zehar garatutako jarduerak identifikatu, eta Udalbatzan onartutako Ekintza Planaren ezartze-maila neurtzen du. Denek tresna berak erabiltzen dituzte horretarako, azpimarratzekoak: Ebaluaziorako irizpide homogeen aplikatzea bermatzen duen *Ebaluaziorako gida metodologikoa*, eta Ekintza Planaren kudeaketa eta ebaluazioa errazten duen *MUGI21 aplikazio informatikoa*.

Planaren ezartze-mailaren balorazio kualitatiboan, ebaluazio taldeak EKINTZA BAKOITZARI, URTERO, EZARTZE-MAILA JAKIN BAT ipintzen dio, ekintza bakoitzera bideratutako jarduera zehatzen, eta ekintza bakoitzean definitutako helburuen arabera.

- (H) Hasteko: 0
- (Ha) Hasita: 0,25
- (Au) Aurreratuta: 0,50
- (Am) Amaitzen: 0,75
- (At) Amaituta: 1



EAEn Tokiko Agenda 21 kudeatzeko diseinatutako aplikazio informatikoak, hots, **Mugi 21ek**, egoera bakoitzari balio numerikoa ezartzen dio, eta orotara Planak dituen ekintza kopurua kontuan izanik, **Planaren ezartze-mailaren ehunekoa** kalkulatu du, formula honen arabera:

$$\text{Planaren Ezartze-maila} = \left[\frac{[(H*0) + (Ha*0,25) + (Au*0,5) + (Am*0,75) + (At*1)]}{N} \right] \times 100$$

2.4.- ZEIN ERAGILEK PARTE HARTZEN DUTE ETA ZEIN DA EUREN FUNTZIOA?

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren ezartze-mailaren 2009ko emaitzak



Inplikaturako eragileak

Ekintza Planaren exekuzioan inplikaturiko udal arduradunak, teknikoak nahiz politikoak, udal enpresak edo udal eskumenak dituzten eskualde mailako erakundeak.

Prozesuaren (eta TA21aren) arduraduna


TA21-aren prozesuaz arduratzen den udal eragilea

Ebaluazio taldea

Programaren testuinguruan, prozesuaren ebaluazioa egiteko ardura zehatza duen GFAk izendatutako taldea. Ebaluazio irizpideak modu homogeneoan aplikatu, eta oro har prozesuaren aplikazioa bermatuko duena.

2.5.- ZEIN DA EBALUAZIO PROZESUAREN EGITURA?

Ebaluazio prozesuak TA21en Tokiko Ekintza Planean parte hartzen duten udal-eragileen, Tokiko agenda 21eko koordinatzailearen eta ebaluazioaz arduratuko den kanpo-eragilearen artean banatuko dituzten hainbat egiteko ditu.



2.6.- ZEIN ONURA DITU EBALUAZIO PROZESUAK UDALERRIENTZAT?

- Urtero, aurreko urteekiko nahiz beste udalerriekiko alderatzeko moduan, udalerriko Ekintza Planaren **ezartze-maila orokorra** ezagutzea.
- Ekintza Planaren **exekuzioaren ahulezi eta indargune nagusiak** identifikatzea: ekintza tipologiaren, gaiaren, erantzulearen edo bestelako aldagaien arabera identifikatuko dira, honek ezarpena hobetzen lagun dezakeelarik.
- Egindako ebaluaziotik abiatuz, Ekintza Planaren edukien **eguneratzea erraztea**, eta Plana behar bezala ezartzea oztopa dezaketen zehaztasun-erak zuzentzea.
- Data horretara arte, Planaren barnean aurrera eraman diren **jarduera guzti-guztiak** modu objektibo eta zehatzean ezagutzea.
- Planaren ezarpenean **udal eragileek duten inplikazio-maila** ezagutzea.
- Politika publikoen gardentasuna sustatuz, plana aurrera eramateko egindako ahalegina herritarrei nahiz **eragile sozial eta ekonomikoei komunikatzea** erraztea.
- TA21eko prozesuan parte hartzen duten **udal eragileen inplikazioa sustatzea**.
- Onartutako Ekintza Plana eta egindako ebaluazioa kontuan izanik, **hurrengo urterako ekintzen programazioa** erraztea.

3

II. EKINTZA PLANAREN EZAUGARRIAK


3.1.- II. PLANAREN EZAUGARRIAK: DATUAK

Identifikazioa: II. Ekintza Plana
Ekintza kopurua: 138
Inplikaturako eragile kopurua: 18
Ebaluatutako urtea: 1.

Indarraldia: 2009-2016
Ekintza jarraiak: %80
Biztanleria (2009): 22.712

PLANEN EZAUGARRIAK GLHan


Ekintzen batez bestekoa eta Planetan inplikaturako eragileak udalerraren tamainaren arabera



ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

PLANEN EZAUGARRIAK EAEn

Ekintzetan parte hartu duten eragileek eta ekintzeen batez besteko kopurua udalerraren tamainaren arabera



ITURRIA: 2009ko EAeko Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikaren datuak (89 udalerrietako batez besteko datuak)

3.2.- II. PLANAREN EZAUGARRIAK: AZTERKETA

Identifikazioa: II. Ekintza Plana
Ekintza kopurua: 138
Inplikaturako eragile kopurua: 18
Ebaluatutako urtea: 1.

Indarraldia: 2009-2016
Ekintza jarraiak: %80
Biztanleria (2009): 22.712

Gure planaren ezaugarriak aztertuz, azpimarratu II. Ekintza Plana dela udalerria aurrera eramaten ari dena, 2009-2016 urteen artekoa, hain zuzen ere. Bigarren Planaren lehen urtea da beraz ebaluatu duguna. Planak 138 ekintza ditu, horietatik 111 jarraituak (%80).

PLANAREN EKINTZA KOPURUA

Zarauzko II. Planaren ekintza kopurua (138), 15.000 biztanletik gorako Gipuzkoako udalerrien nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien batez besteko ekintza kopurua baino **baxuagoa da** (213 eta 173 ekintza, hurrenez hurren).

PLANEAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN KOPURUA


Planaren ezarpenean parte hartzen duten Udal arduradunen kopurua (18), Lurraldeko nahiz EAEko udalerrietako batez bestekoaren **azpitik** kokatzen da (28 eta 23, hurrenez hurren).

4

PLANAREN EZARTZE-MAILAREN EMAITZAK


4.1.- Planaren ezartze-maila orokorra 2009ko abendura arte: DATUAK

Ekintza Planaren ezartze-mailaren bilakaera (%)




BATEZ BESTEKO EZARTZE-MAILA ETA HELBURUKO EZARTZE-MAILAREN BILAKAERA GLHan

Planen batez besteko ezarpenaren bilakaera helburuarekiko



BATEZ BESTEKO EZARTZE-MAILA ETA HELBURUKO EZARTZE-MAILAREN BILAKAERA EAEn




ITURRIA: EAEko Tokiko Iraunkortasun Txostena 2009 (89 udalerrien batez besteko datuak)

ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)



4.2.- Planaren ezartze-maila orokorra 2009ko abendura arte: AZTERKETA

Ekintza Planaren ezartze-mailaren bilakaera (%)



Ekintza Planaren ezartze-mailaren bilakaera aztertu eta Gipuzkoako eta EAeko udalerrietako planen batez besteko ezartze-mailarekin eta helburu den ezartze-mailarekin konparatuz, zera esan daiteke:

LORTUTAKO EZARTZE MAILA



Planaren ezartze-maila, bere lehenengo urterako helburu gisa **proposatutakoaren berdina da, %18** hain zuzen ere.


EZARTZE-MAILA BATEZ BESTEKO DATUEKIN ALDERATUZ



Gipuzkoako nahiz EAeko udalerrien batez besteko ezartze-mailarekin konparatuz, udalerrri honetako planaren ezartze-maila ere **altuagoa** da. Lehen urtean lortutako ezartze-maila, Gipuzkoako nahiz EAeko udalerrien batez besteko ezartze-maila baino 4 puntu inguru altuagoa da (%13,6 eta %14,2 hurrenez hurren).

4.3.- Planeko ekintzen garapen-maila

Planeko ekintzen garapen-maila (%)



2009ko abenduan, Planeko ekintzen garapen-maila eta azken bi urtetan izandako bilakaera aztertuz, zera esan daiteke:

EKINTZEN GARAPEN-MAILA




Aipagarria da, Plana 2009. urtean bertan abiatu arren, ekintzen %58 hasita behintzat badirela eta beraz erdia baino gutxiago direla hasteko daudenak: %43 hain zuzen ere. Bestalde, ekintzen %13 jada aurreratuta daude (aurreratuta edo amaituta). Garapen-maila honetan, zerkusia izan dezake II. Plana izateak, hainbat lerro eta ekintza lehendik ere landuta izango baitira ziur aski.


4.4.- Planaren ezartze-maila lerro estrategikoei jarraiki: DATUAK

GIPUZKOAKO PLANEN BATEZ BESTEKO EZARTZE-MAILA LERRO ESTRATEGIKOARI JARRAIKI

Ezartze maila urte eta lerro estrategikoari jarraiki (%)



Ezarpenera egoera gai eremuaren arabera



ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

4.5.- Planaren ezartze-maila lerro estrategikoei jarraiki: AZTERKETA

Planaren lerro estrategiko desberdinen ezartze-maila aztertuz, zera esan daiteke:

EZARTZE-MAILA ALTUENeko LERRO ESTRATEGIKOA



Ezartze-maila altuena duten bi lerro estrategikoak honakoak dira: batetik, tokiko ekonomiaren garapena eta enplegu sorrera sustatzea eta bestetik, kirol eta kultura jarduerak eta euskararen erabilera sustatu eta dinamizatzea. Bi kasu hauetan ezartze-maila **%28ra iristen da**, hau da batez besteko ezartze-maila orokorra baino 10 puntu altuagoa. Batez besteko orokorra baino ezartze-maila altuagoa lortzen duen beste lerro estrategikoa honakoa da: hiri espazioa iraunkortasun irizpideen arabera erabil dadin planifikatzea (%24).

EZARTZE-MAILA BAXUENeko LERRO ESTRATEGIKOA



Ezartze-mailarik baxuena duen lerro estrategikoa aldiz, justizia soziala eta herritarren ongizatea bermatzearekin zerikusia duena da, **ezartze-maila %9koa** izanik, batez besteko orokorraren 9 puntu azpitik geratzen baita. Batez besteko orokorra baino ezartze-maila baxuagoa erakusten duten beste lerro estrategikoak honakoak dira: udalerriko balio naturalak eta paisaia-balioak babestu, berreskuratu eta horiei balioa ematea (%11); iraunkortasun gaietan komunikazioa eta sentsibilizazioa indartu eta udal kudeaketan zeharkakotasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea (%12); eta pertsonen osasunean eta ingurumenean inpaktuak jasateko arriskuak minimizatzea (%13).

EZARTZE-MAILA ERTAINEko LERRO ESTRATEGIKOAK



Bi dira **batez besteko orokorraren maila bereko ezartze-maila** erakusten duten lerro estrategikoak: batetik, baliabideak era arduratsuan kontsumitzea eta prebentzioan oinarrituta hondakinen osoko kudeaketa egitea; eta bestetik, turismo-eredu iraunkorra bultzatzea, udalerriko balio kultural eta naturalekin bat etorriz.

5

AALBORGeko KONPROMISOEI EGINDAKO EKARPENA

Jarraian, gure udalerrriak Aalborgeko konpromisoei egindako ekarpena zehazten da, konpromiso bakoitzaren barnean, 2009. urtean burututako, hau da amaitzen edo jada amaituta dauden ekintzak zehaztuz:

Urtea 2009

3 NATUR ONDASUN KOMUNAK	Lehentasuna Ezartze -maila	
A 1.4.5 Udaletik bertatik, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak tratatzeko instalazio bat eraikitze aukera aztertu.	Altua	Amaituta
10 TOKIAN TOKITIK MUNDU GLOBALERA	Lehentasuna Ezartze -maila	
A 1.4.5 Udaletik bertatik, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak tratatzeko instalazio bat eraikitze aukera aztertu.	Altua	Amaituta

6

TOKIKO AGENDA 21eko BARNE-KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAREN AZTERKETA

6.1.- Barne koordinaziorako mekanismoa: DATUAK

Ez. Zarautzen ez dago Tokiko Agenda 21aren ezarpenerako koordinazio teknikoaz arduratzen den mekanismo egonkorrik.

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAK GLHn


TA21aren ezarpenerako koordinazio teknikorako mekanismo egonkorra dago (Udal Iraunkortasunerako Batzordea-UIB)



- Ez dago
- TA21 txertatzen den koordinazio teknikorako mekanismo orokorra dago
- TA21eko organo iraunkor bat dago: UIB (3)

ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAK EAEn



- Ez dago
- TA21 integratzen duen koordinazio tekniko orokorrerako organoa dago
- TA21en organo egonkorra dago: UIB

ITURRIA: EAEko Tokiko Iraunkortasun Txostena 2009 (89 udalerrien batez besteko datuak)

6.2.- Barne koordinaziorako mekanismoa: AZTERKETA

Ez. Zarautzen ez dago Tokiko Agenda 21aren ezarpenerako koordinazio teknikoaz arduratzen den mekanismo egonkorrik.

Udal mailan Planaren koordinazioa, hots, Planaren zeharkakotasuna eta eraginkortasuna, bermatzera zuzenduta dagoen barne-mekanismoari buruz, zera esan daiteke:

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOA




Tokiko Agenda 21aren inguruko gaiak koordinatzeko inolako barne mekanismo egonkorrik ez duen udalerrietako bat da Zarautz (Gipuzkoako udalerrien %37,8 eta EAEkoen %42,0).

6.3.- Barne koordinaziorako mekanismoaren izaera: DATUAK

Egun barne koordinaziorako mekanismorik egon ez arren, aurrera begira beharrezkoa ikusten da halako tresna bat sortzea. Koordinazio teknikorako tresna hori maila orokorrean planteatu beharko litzatekeela irizten da, alegia, sektoriala izan ordez, Udal barruko koordinazio teknikorako mekanismo bakarra izan behar lukeela, modu horretan, teknikarien koordinazio lanetan sortzen diren bikoizketak saihestu eta bilera horiek optimizatuz.

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAREN IZAERA GLHn

Koordinazio-bilerak honelakoak dira, batik bat...




- Informatzeko
- TA21en ebaluazio- eta segimendu-prozesuaren emaitzak balioztatzeko (eguneraketa, programazioa...)
- TIA-en azterketa eguneratzeko, programatzeko eta bertan parte hartzeko proposamenak egiteko

ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAREN IZAERA EAEn

Koordinazio-bilerak honelakoak dira, batik bat...



- Informatzeko
- TA21en ebaluazio- eta segimendu-prozesuaren emaitzak balioztatzeko (eguneraketa, programazioa...)
- TIA-en azterketa eguneratzeko, programatzeko eta bertan parte hartzeko proposamenak egiteko

Iturria: EAeko Tokiko Iraunkortasun Txostena 2008 (72 udalerrien batez besteko datuak)

6.4.- Barne koordinaziorako mekanismoaren izaera: AZTERKETA

Egun barne koordinaziorako mekanismorik egon ez arren, aurrera begira beharrezkoa ikusten da halako tresna bat sortzea. Koordinazio teknikorako tresna hori maila orokorrean planteatu beharko litzatekeela irizten da, alegia, sektoriala izan ordez, Udal barruko koordinazio teknikorako mekanismo bakarra izan behar lukeela, modu horretan, teknikarien koordinazio lanetan sortzen diren bikoizketak saihestu eta bilera horiek optimizatuz.

BARNE KOORDINAZIORAKO MEKANISMOAREN IZAERA

Egun udaletan dauden barne koordinaziorako mekanismoen izaera hiru multzotan sailka daiteke: soilik izaera informatiboa dutenak (Gipuzkoako nahiz EAEko udaletan daudenen %32); TA21en ebaluazio- eta segimendu-prozesuaren emaitzak balioztatzeko direnak (eguneraketa, programazioa...) (Gipuzkoako udalen %36 eta EAEko udalen %38); TIA-en azterketa eguneratzeko, programatzeko eta bertan parte hartzeko proposamenak egiteko direnak (Gipuzkoako udalen %32 eta EAEko udalen %30). Beraz, honen arabera, aztertzea litzateke Zarauzko barne-koordinaziorako mekanismoak izan beharko lukeen izaera.



7


TOKIKO AGENDA 21eko HERRITARREN PARTE-HARTZE MEKANISMOAREN AZTERKETA

7.1.- Herritarren parte-hartzerako mekanismoa: DATUAK

Egun, Zarautzen ez dago herritarren parte-hartzerako mekanismo egonkorrik. Hala ere, parte-hartze hori modu puntualean ahalbidetzen da egoki ikusten denean herritarren bilerak antolatuz.


HERRITARREN PARTE-HARTZE MEKANISMOAK GIPUZKOAKO UDALERRIETAN

Herritarren parte hartze mekanismoa badago
(erantzun anitza)



- Ez dago
- Organo egonkor orokor bat dago: Parte hartze foroa
- Gaien araberako parte hartze organo osagarriak daude

Herritarren parte hartze egonkorretako
mekanismoen bileren maiztasuna
(foroak/batzordeak)



- Ez dago parte hartze bilerarik
- Orain dela 2 urte ez direla bildu
- Organo iraunkorraren bilera puntualak (azken 2 urtetan 1-2 bilera)
- Organo iraunkorraren aldizkako bilerak (urtean 2 bilera baino gehiago)

ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

7.2.- Herritarren parte-hartzerako mekanismoa: AZTERKETA

Egun, Zarautzen ez dago herritarren parte-hartzerako mekanismo egonkorrik. Hala ere, parte-hartze hori modu puntualean ahalbidetzen da egoki ikusten denean herritarren bilerak antolatuz.

Planaren ezarpen eta jarraipenean, talde sozio-ekonomiko desberdinen ordezkari eta gardentasuna bermatzeko sortutako herritarren parte-hartze mekanismoa, lurralde mailan sortutako mekanismoarekin alderatzerakoan, zera ikus daiteke:

HERRITARREN PARTE-HARTZE MEKANISMOA



Aztertzen ari garen udalerrri honek ez du herritarren parte-hartzerako organo egonkorrik, Gipuzkoako udalerrrien %18,1ek bezala.

Hala ere, modu puntualean bilerak antolatzen dira herritarrek parte hartzeko eta aurrera begira badago herritarren parte-hartze foro egonkorra sortzeko asmoa.

7.3.- Herritarren parte-hartzearen kalitatea: DATUAK

Herritarrek parte hartzeko bilera puntualak antolatzen direnean, 11-20 lagunek hartzen dute parte. Bilera hauetan, herritarrak informatu eta beren kexak eta eskaerak jasotzen dira.

Alderdi positiboak:


- II. Ekintza Plana egiteko prozesuan, 10 herritar inguruk interesa agertu dute II. Plan honen jarraipen-prozesuan parte hartzeko.
- 2010ean Foro hau indartu eta izaera egonkorra emateko helburua finkatu da.

Hobetu beharrekoak:


- Parte-hartzea ebaluazioarekin, programazioarekin zerikusia duten gai zehatzetan proposatu behar da, lehenetsunak finkatu behar dira, aurrekontuak ezagutzera eman, etab. Bestela, TE Planaren parte-hartze proposamena orokorra egiten da.
- Hitoak antolatu behar dira: modu sistematikoan urtean zehar gutxi gorabehera 4 aldiz elkartzeko momentuak.
- Teknologia berrien bitartez komunikazioa hobetu beharra dago, beti ere teknologia horiek erabiltzerik ez duten pertsonak ahaztu gabe.

HERRITARREN PARTE-HARTZE MEKANISMOEN KALITATEA GIPUZKOAKO UDALERRIETAN

Batez besteko partaide kopurua parte-hartze bilera bakoitzeak



Parte-hartze saioen izaera honakoa da nagusiki...



ITURRIA: 2008ko Gipuzkoako ebaluazioko laguntza Programaren emaitzen txostena (37 udalerrien batez besteko datuak)

7.4.- Herritarren parte-hartzearen kalitatea: AZTERKETA

Herritarrek parte hartzeko bilera puntualak antolatzen direnean, 11-20 lagunek hartzen dute parte. Bilera hauetan, herritarrak informatu eta beren kexak eta eskaerak jasotzen dira.

Alderdi positiboak:

- II. Ekintza Plana egiteko prozesuan, 10 herritar inguruk interesa agertu dute II. Plan honen jarraipen-prozesuan parte hartzeko.
- 2010ean Foro hau indartu eta izaera egonkorra emateko helburua finkatu da.

Hobetu beharrekoak:

- Parte-hartzea ebaluazioarekin, programazioarekin zerikusia duten gai zehatzetan proposatu behar da, lehentasunak finkatu behar dira, aurrekontuak ezagutzera eman, etab. Bestela, TE Planaren parte-hartze proposamena orokorregia egiten da.
- Hitoak antolatu behar dira: modu sistematikoan urtean zehar gutxi gorabehera 4 aldiz elkartzeko momentuak.
- Teknologia berrien bitartez komunikazioa hobetu beharra dago, beti ere teknologia horiek erabiltzerik ez duten pertsonak ahaztu gabe.

HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUAREN KALITATEA

Oraindik modu egonkorrean antolatu ez bada ere, II. Ekintza Plana egiteko prozesuan interesa agertu duten herritarren foroa osatu eta beren bidez Planaren eguneratze eta programatzearekin zerikusia duten proposamenak egingo liratekeela dirudi. Horrela balitz, foro honen izaera Gipuzkoako udalerrien %44,8ren berdina izango litzateke.

Bestalde, bileretan batez beste parte hartuko duten pertsona kopuruari dagokionez, Gipuzkoako udalerrien %48,3k osaturiko multzoan kokatuko da Zarautz.

8

PLANAREN EGUNERATZEA

Udalsarea 21eko Ekintza Plana kudeatzeko ereduak, Plana EGUNERATZEKO aukera ematen du, MUGI21aren bidez. Eguneraketa, ezartze-mailaren ebaluazio-azterketa (nahiz bestelako azterketak) oinarri hartuta bideratzen da.

Plana eguneratzeak ez du bere filosofia orokorrean eragiten, baina hainbat moldaketa egiteko aukera ematen du:

- EKINTZA PLANEAN KONTUAN HARTU EZ DIREN EKINTZAK identifikatzea; planarekin bat datozen, eta jada burutzen ari diren ekintzak, beti ere.
- BIRFORMULA daitezkeen ekintzak identifikatzea: Hasierako definizioarekin bat ez datorren modura ezartzen ari diren ekintzak birformula daitezke.
- BIKOIZTUTAKO EKINTZAK identifikatzea.

Jarraian, gure Planaren azken ebaluazio honen ondorioz egindako eguneratze proposamenak:

BIRFORMULATUTAKO EKINTZEN ZERRENDA

Ekintza	Epea	Lehentasuna
A 1.4.1 Herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak sortzen dituen kartoi hondakinak jaso eta kudeatzeko sistema alternatiboak jartzea bideragarria den baloratu, eta hala bada, egin beharreko aldaketak egin, zerbitzua sendotu eta udalerrri osora zabaldu.	Laburra	Altua
A 1.4.5 Udaletik bertatik, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak tratatzeko instalazio bat eraikitzeke aukera aztertu.	Laburra	Altua
A 1.4.7 Sentsibilizazio kanpaina eta ekintzak diseinatu eta martxan jarri, bai hondakinen prebentziorako, eta bai hiri hondakinen gaikako bilketan herritarrek eta hirugarren sektorekoek aktiboki parte hartzeko.	Ertaina	Altua
A 1.5.1 Kontratazio publikoak egiteko politika berde, etiko eta soziala onartu.	Laburra	Altua
A 1.5.2 Udalerako erosketa berdea egiteko ekintza plana definitu eta ezarri.	Ertaina	Altua
A 3.5.1 Herriko eta herri arteko garraio publikoko eskaintza hobetzeko beharren azterketa egin, kalitatea, lehiakortasuna eta integrazioa hobetuz	Laburra	Altua
A 7.1.4 Atzeritik datozen etorkinak hartzeko plan bat egin, abian jarri eta jarraipena egitea hainbat eragilerekin koordinatuta.	Laburra	Altua
A 7.4.2 Udalerrian dauden etxebizitza hutsen mugikortasunari buruzko informazioaren jarraipena eta kudeaketa.	Laburra	Altua
A 9.2.1 Udalerriko Tokiko Agenda 21 hedatzeko komunikazio ekintzak antolatu eta burutu.	Ertaina	Altua

BIKOIZTUTAKO EKINTZEN ZERRENDA

Ekintza	Epea Lehentasuna	
A 1.4.4 Udalerriko alde zaharrear, dendetan eta tabernetan atez ate kartoia biltzeko sistema finkatu eta zabaldu.	Laburra	Altua
A 1.5.3 Udalerako erosketa eta kontratazio etiko eta soziala egiteko ekintza plana definitu eta ezarri.	Ertaina	Altua
A 3.5.2 Herriko eta herri arteko garraio publikoko eskaintzaren kalitatea, lehiakortasuna eta integrazioa hobetu.	Laburra	Altua

Zarauzko Tokiko Ekintza Planaren ezartze- mailaren ebaluazioa (2009. urtea)

TOKIKO AGENDA 21



GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE

Laguntza teknikoa

Siadeco^x
ikerketan aplikatua

